

EUSKAL HISTORIOGRAFIAREN BARRENA: GIZARTE ARAZOEN KEZKA ETA AZTERKETA XX MENDEKO TOKIKO HISTORIOGRAFIAN

Joseba Agirreazkuenaga Zigorruga

Honela idazten zuen I. Gurrutxagak 1933. urtean: «gure iraganaren idealizazioari dagokion fenomenoa antzinako da, herri tradizionalista bati dagokiona alegia». Alabaina, espediente penalek XVIII. mendeko «klaseen arteko tirabiren» testigantza eskaintzen digute, Dena den, XIX. mendearen lehen erdialdeko euskal historiografiak ez zuten kasik komunitate barneko gatazka eta bizitza sozialari buruzko hausnarketarik eskaini. Hiru fase nagusi bereiz genitzake bertako historiografiaren eboluzioan:

1.—Hiztegien garaia, XIX. mendean zabaikiro garatu zena eta heredentzia gisa Geografía General Vasco-Navarra obra bikaina utzi zuena.

2.—Tokian tokiko monografiaren garaia. XIX. mendean barrena garrantziko batzu idatzi baziren ere, XX. mende hasierako bi hamarkadetan ekin zioten nagusiki tokian tokiko monografia historikoak bultzatu zituen politikari. Egileak artxibazainak izan ziren maizetan, ikuspegi positibotazjantzirko gizonak, datuen kultuan murgildurik ihardun zutenak, nahiz deskribaketa kronologiko on batetik harat igaro ez ziren. Jarrera hau hazi zen XIX. mende bukaerako erromantizismoaren aurreko erreakzioaren fruitua dugu zalantzarik gabe. Carmelo Echegaray, Serapio Mugica, Teófilo Guiard eta Gregorio Mugica izan ziren tokian tokiko monografia horietan beren nortasunaren arrastoak inprimatzen jakin izan zuten autoreak.

3.—1920-1930 urteetatik aurrera, asmo anbiziotsuagoko obrak burutu zituen historigile belaunaldi berria sortu zen. Hauekin, ikerketen interesgune nagusia gizarte eta gizataldeen arteko gatazketara igaro zen. Bonifacio Etxegarai bi belaunaldi horien arteko iragaitzeko autorea izan zen. Produzko historiografikoa 1909an hasi bazuen ere Vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco (1932) bezalako obra historiografia berriaren eredu bikaina genuke inola ere. Bertan ikertu zituen nekazal nahiz hiri giroko komunitate tradizionalako sozietasunaren oinarriak I. Gurrutxaga, Th. Lefebvre, Ciriquiain Gaiztaro eta Julio Caro Barojaren lanez bizimodu sozialari nahiz tokian tokiko gatazka giroari buruzko azterketa bikainak eskaini dizkigute, nahiz ikerketan oinarri hartu dituzten teoriak bat ez datozen beti.

1964ean, tokian tokiko historiak burutzea helburu zuen proiektu handiguratsu bat aurkeztu zen. Camino Doktorea taldea sortu zen Donostiako historia lantzeko eta ondoko urteetan Gipuzkoako herri askori buruzko monografiak argitaratu ziren. Enpirismo dokumentala izan zen monografia hauen ezaugarri nagusia.

El análisis de la sociedad en la historiografía vasca de ámbito local

Escribía I. Gurrutxaga en 1933 que «un fenómeno de idealización de nuestro pasado, de origen muy antiguo, propio de un país fuertemente tradicionalista» pero los expedientes penales atestiguaban la «tirantez de clases» en el siglo XVIII. Sin embargo la historiografía local de primera mitad del siglo XX apenas reflexionó sobre temas relacionados con la conflictividad y la vida social de la comunidad. En la evolución de la historiografía local podemos distinguir tres fases:

1.— *El tiempo de los diccionarios, de gran desarrollo en el siglo XIX cuya herencia fue recogida por la magnífica obra de la Geografía General Vasco-Navarra.*

2.—*El tiempo de las monografías locales. Durante el siglo XIX se escribieron algunas importantes, pero en las primeras dos décadas de este siglo será cuando se aborde una política de promoción de las monografías históricas locales. Sus autores fueron con frecuencia archiveros, dotados de una visión positivista, de culto al dato, que no excedía el nivel de la buena descripción cronológica, sin duda como reacción al romanticismo de fines del siglo XIX, en el que crecieron. Carmelo Echegaray, Serapio Mugica, Teófilo Guiard, Gregorio Mugica fueron los autores que supieron imprimir su personalidad en sus monografías locales.*

3.—*A partir de 1920-30, podemos observar otra generación de historiadores, cuyas producciones tienen un planteamiento más ambicioso y con temas relacionados con la sociedad y el conflicto social como centros de interés de sus investigadores. La figura de Bonifacio Etxegarai representa el momento de la transición entre las dos generaciones. Su producción historiográfica la inició en 1909, pero obras como la Vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco (1932) resultan un buen exponente del nuevo quehacer historiográfico. En él se estudia los fundamentos de la sociabilidad de la comunidad tradicional, tanto la del campo como la de la ciudad. Los trabajos de I. Gurrutxaga, Th. Lefebvre, Ciriquiain Gaiztaro y Julio Caro Baroja, ofrecen excelentes análisis de la vida social y conflictividad en el ámbito local, si bien las teorías que subyacen en sus investigaciones no siempre son coincidentes.*

En 1964 se presentó un ambicioso proyecto con el fin de producir historias locales. Se creó el grupo Dr. Camino de historia Donostiarra, y en años sucesivos se publicaron numerosas monografías de pueblos guipuzcoanos, siendo el empirismo documental la nota dominante de las monografías.

Analysis of the society in basque historiography in a local context

1. Gurrutxaga wrote in 1933 «a phenomenon of idealization of our past, with a very ancient origin, specific to a very traditional country but penal files witnessed the «tension of classes» in the XVIII century. However, local historiography of the first half of the XX century hardly thought of subjects in relation to conflicts and social life of the community. We can observe three stages in the evolution of local historiography:

1.— The stage of dictionaries, with a great development in the XIX century, which heritage was collected by the magnificent work of the General Basque-Navarre Geography.

2.—The stage of local monographs. During the XIX century, some important ones were written, but in the first two decades of this century a promotion policy of local historical monographs will be developed. The authors were usually fine clerks, who had a positivist vision and a data cult, which did not go beyond the good chronological description, probably as a reaction to romanticism from the end of the XIX century, where they grew. Carmelo Echegaray, Serapio Mugica, Teófilo Guiard, Gregorio Mugica were the authors who succeeded in transmitting their personality to their local monographs.

3.—From 1920-30, we can observe another generation of historians, whose publications have a more ambitious approach, with subjects related to society and the social conflict, as the centre of interest of researchers. The figure of Bonifacio Etxegaray represents the transition period between both generations. He started his historiographic production in 1909, but works as «La Vecindad, Relaciones que engendra en el País Vasco» (The neighbourhood, relationships generated in the Basque Country) (1932), are a good example of the new historiographic trend. The work analyzes the basis of social nature of traditional community, both in town and country. Works by I. Gurrutxaga, Th. Lefebvre, Ciriquiain Gaiztarro and Julio Caro Baroja, provide excellent analysis of social life and conflicts at a local level, although theories underlying in their researches are not always coincident.

In 1964, an ambitious plan was presented in order to produce local stories. The group Dr. Camino of San Sebastian History was founded, and in the subsequent years a large number of monographs about villages in Guipúzcoa were published, being the documentary empiricism the prevailing characteristic of monographs.

1970.ko hamarkadan euskal historiografiaren eraberritzearen garaia sortu zela, ez dago inolako zalantzarik baina ordurarteko historiografiaren aurrean, aurkako jarrera errotua zegoela ere bai, aurreko belaunaldiko historialarien zereginak kezka eta ahaleginak zehazki irakurri eta arakatu gabe alegia. Nola edo hala aurrekoen produkzioa karikaturizaturik, banalizazioz beterik balego agertarazten da, delako irraganeko historiografia guztia mitogintzan oinarriturik balego bezala. Nire ustez tradizioaren etenaldiak, ekarri du iraganeko historiografiaren ezezagupena. Eta 1970.eko hamarkadetan ikasle ginenok ez genuen iraganeko historiografia modu arautu batez ezagutzeko paradarik izan. Ondoko lerroetan aldiz, saiatuko gara saiatu, tradizio emankorrek ez ezik, gizarte arazoei buruz, gaur eguneko kezka sarritan planteatu zirela erakusten eta gaurrengungo historiografiak aurrera pausu nabarmenak burutu dituela, metodologia eta teoria aberastuz, ikerlanez frogatu beharko du.

Historiografiak orokorki eta bereziki tokiko historiografiatzat ulertzen duguna definitu beharko dugu. Ez dira nireak lehendabiziko gogoetak izango, Britainia Handian aspalditik eginak baitira (Phynthian-Adams, 1987, Everitt-Tranter 1981) eta Catalunyan *L'Avenç* aldizkariko eranskian, *Pleçs de historia* local izenekoan, eritzi jakingarriak argitaratu dira. Horra ere J. Fontana edo Ucelay da Calen artikulua (1985). Azken urteotan biltzarre internazional jakingarriak antolatu dira tokiko historiari buruz. Valencian 1988.an ondoren *L'Espai viscut* izeneko liburua argitu zela. Azaroan Barcelonan beste nazioarteko kongresua antolatu zen.

Tokiko kategoria espazio mailara mugatzen dugu eta horretan historian zehar udal herri hiri edo eskualde mailako esparruan azterketa mikrohistorikoan saiatzen dena, hartuko genuke guk tokikotzat, hau da espazio murriztan gizatalde jakin batek protagonizatzen duen bitziza soziala beraien asmoen kezka eta proiektuak izango lituzke aztergaitzat, azken batean gizakion arazoak. Tokiko historia baino gehiago, tokian sortzen eta asmatzen den historia burutzea da helburua hau da bertan historian zehar planteatzen diren arazoaren aurrean asmatu erantzunak izango du jomuga.

Herrialde edo probintzi mailan adibidez erakundetze politiko administratibo ezaguna dugu Batzar Nagusien eta Diputazioaren esparrukoa baina bestelako esparru maila dugu tokikoa deritzoguna, nahiz eta jakina, maila honetan ere mikrohistoriazko metodoak erabil daitezkeela onhartu. Mikrohistoriazko kontzeptuan tokiko espazio fisikoa bariabile bat da, azterketa metodoa garrantzitsua bihurturik. Egitura materialak aztertzeotan, ingurune materiala aintzakotzat hartzeko dugu, baina badaude beste foneme batzuk, Giovanni Levik (1990) «materia gabeko herentziak» deitzen dituenak, hots sinboloak usteak eta abar. Mikrohistoriaren bidez baino ezin daitezke azken hauek aztertu eta arakatu.

Berez, jakin badakigu, espazio eta denborarik ez dagoela, sortu egiten ditugula, eta gure herriaren espazioaz uste eta kontzeptu desberdinak sortu dira historian zehar. Adibidez, herrialdea baino eskualdea edo bailarak Euskal Herrian erromatarren ondotik nortasun juridiko administratibo soziala eta ekonomikoa izan ohi du, eta tokiko auzotasunaren gain bailarakoa genuke urrengo maila orokorra. Hau da, etxe, auzo, herri, bailara merindate edo eskualde liriteke gure ustez tokiko kategorian sartuko genituzkenak, espazio fisikoa oinarritzat harturik.

Abiapuntu honetan oinarriturik, XX. mendekoa bere hartan zuzenago heltzeko, beharrezkoa dugu, XIX. mendean sorturiko tokiko historiografiaren aipamena egitea eta bereziki gizarte arazoei buruz izandako kezka eta ikuspegiak azpimarratzea. Nire ustez, tokiko historiak, historia nagusia, transnazionala ere ulertarazteko da eta horretarako arazo nagusiak maila txikian planteatzen eta operazionalizatzen jakin behar dugu, historiografia unibertsalak planteaturik dituen arazo kezka eta uste nagusiak tokian tokiko eremuan nola gihartu diren jakin behar dugu, edo nola sortu, planteatu diren modu horretan deskribapen soilaren enpirismoa gaudituz, teoria orokorrari ekarpen sendoak egiteko aukera metodologiko eta bitartekoa ezin hobea azaltzen zaigula tokiko historiaren produktziogintzaren bidez lortuko bait genuke. Teleskopioa eta mikroskopioa erabiltzea onuragarria da ere arazo sozialak eta gizakiaren esperientzia ulertarazteko, baina tokiko historian, mikrokosmoak azaltzen ahalegindu beharko gara, espazioaren gainetik, bertan bizi izan diren esperientziak azaltzen eta ulertarazten.

1. EUSKAL HISTORIOGRAFIAZ ZENBAIT GOGOETA

Tokiko historiografia bere kontextuan sartzeko, lehendabizi, labur bada ere, euskal historiografiaren nundik norakoa azaldu beharko dugu, ondoren tokiko historiografian gizarte arazok eta gatazkak nola azaldu diren ikusteko.

Euskal historiografiaren historia egitean, ondorio desberdinak agertzen dira, haren azterketa modu desberdinez burutua baita. Azken urteotan produzitu dira gogoeta gehienak. Batzuetan ikerlan historikoen zerrenda hutsa da, euskal historiografia nazioanaren kezka arduraturik. Adibidez B. Estornes Lasak buruturikoa. Edo deskribapen hutsa, historiazko lanen barri xehea baino ez da eskeintzen. Adibidez, Extraminaren (1980) lana. Beste batzuetan, ikuspuntu positibista eta dokumentalistak eraginik, benetazko izatea nun ote dagoen egiaztatze gogoz: Mañaricuak argitaraturikoak esate baterako ditugu azken tankera honetakoak. Gai zehatz bat monografikoki aztertuz: Adibidez, Lopez Atxurra 1991 forueri buruzko idatzi duen historiografia. Sanchez Prieto (1988) eta Olabarrik (1986) azterketa teoriko metodologiko jakin bati jarraituz, Carbonell-i hain zuzen ere, ekin diote, XVIII eta XIX. mendeko historiografiaz aritu dira. Azkenik aipatu behar Garcia de Cortazar eta Monterok (1983) egindakoa, sarritan bere judizioak, kontestu kanpo gelditzen direlarik. Nire ustez, zeregin handia dugu euskal historiografiaren azterketan, baina batipat, euskal historiografiaren produktzioa garaian garaiko giroan kokatu behar da eta lan historiko bakoitzaren azpian egon diren asmoak argitan erakusten jakin behar luke. Berez historiografiak, erregistro moeta guztietako obrak aztertu behar ditu, historiagintza sortarazten dugun mundu ikustera bait dugu. Horra bada, gizarte zientzien eremuan murgildu beharra daga, historiak denboraren dimentsioan jartzen gaitula. Galderak argi eta garbi izan behar dira eta ondoren azterketarako erabiliko den metodologia eta teorizazioa erakutsi.

Gure lan honetan, tokian tokiko historietan gizarte arazoak nola azaltzen diren aztertzen saiatuko garenez gero, premiazkoa dugu, euskal historiografia garaikidearen produktzioa nola sortu zen eta nortzuk izan diren autore garrantzitsuak arakatzea, horrela ondoko ikerkuntzak hobeto kokaturik agertuko baitira.

Historialarien profesionalizatzeko prozesua

Lege zaharren garaian, historiazko ikerkuntzak, boterearen lejitimazioari loturik agiri ziren eta beraz delako gogoeta historikoak erakunde publikoetako burokraten esku zeuden gehienetan, XIX. mende amaieran barriz, herrialde mailako erakunde publikoak artxiberoak eta bibliotekarioak izendatzen hasi ziren. Beste horrenbeste hiri nagusietan Modu horretan XX. mende hasieran pertsonai horiek, historiazko ikerkuntzak burutzeko gaitasuna eta trebezia erakusten hasi ziren eta ikerlari profesionalen antzera ikerlanak produzitzen. Karmelo Etxegarai, Serapio Mugika, Teofilo Guiard dira adibiderik garbiena.

Hauen parean, alde batetik *Comisiones de Monumentos* delakoak eta bestetik Eusko Ikaskuntzaren erakundeak, historialariak biltzeko eta elkartzeko aukera zabaldu zuten baina profesionalizazioa ikerlari gehienentzat urrun zegoen. Erdi mailako ikasketa zentruetako irakasleak edo irakasle eskoletakoak, aukera gehiago zuten ikerkuntzara dedikatzen. Gerra ostean, lehen hamarkadetan arazoa gehiegi ez zen aldatu. Baina hirurogeiko hamarkadan, Letretako fakultateak sortu hala eta batez ere Euskal Herriko Unibertsitateko giza eta gizarte zientzietako garapenarekin batera, ikerkuntza historikoa, profesionalizatu eta erakundetu egin zen, unibertsitateko sisteman irakasleak ikerkuntzak burutzea dutelako zereginetariko bat. Bestalde gogotan izan behar dugu, Ingalaterra bezalako herrialdeetan historialarien profesionalizazioa XX. mendearen lehen hamarkadetan gertatu zela.

Gizarte zientzien garapena eta historiografiaren aberastasuna

Historiografiaren eraberritzea eta historiazko produkzioak gizarte zientzien garapenean oinarritzen dira *Annales* eskolako maisuak, historiaren zentralitatea gizarte zientzien baitan azpimarratzen saiatzen ziren. Dena dela argi zera da: Historiaren periferiatik etorri zaiola historiari bere eraberritzearen lehen urratsa.

Sarritan lehenagoko historiografiaren balioa baztertu izan ohi da, arau zientifikoetan oinarritu gabe zegoelako. Baina gure ustez, XX. mendearen lehen erdian, euskal historiografiak urrats garrantzitsuak eman zituen. Beharbada ez garai haretan bere burua historialaritzat zutenen eskutik. Bestelako gizarte zientzietako profesionalen eraginez baizik.

Gure lehen galdera hauxe litzateke: Ba ote euskal eskola historiografikorik? Katalunian adibidez, Ramon Grau-k (1981) erakutsi duenez, katalan eskola historiografiko batez berba egin daiteke. Gure kasuan, ez dago hain argi nire ustez. Probintzietako tradizio historiografikoa, Euskal Herriari buruzkoa baino sakonagoa izan da. Bestalde, ez da modu sistematiko batez produkzio historiografiko sendorik azaltzen, beharbada, unibertsitateak sortarazten duen erakundetzea falta zelako. Baina saiakerarik ez zen faltatu. Gogoratu behar adibidez, Herri adixkideen elkartearen babespean historia nazional baskongadoa burutzeko projektua eta badiardi Landazuri historialariak zerbait idatzi zuela. Zamakolak aldiz, Iparraldeko tradizioaren eraginez beharbada, euskaldunetaz gehiago kezkatzen da eta horrela Euskal Herriko osoko historia erakusten digu. Dena dela joera honek ez du jarraipenik izango. Euskal izate amankomunaren garrantzia, mende bukaeran indarberritu zen, euskal lore jokoak horretan eragin zuzena zutelarik. Garaiko aldizkari zientifiko berrietan ere, Euskal Erria, RIEV eta abarren euskal ikerketak indartzen joango ziren eta giro berri baten erakusle ditugu.

Iparraldean, bada, bai sortu zen euskal historia egiteko modu jakin bat. Baina beharbada euskaldunen jatorriaz gehiegi kezkatutik, sarritan kutsu erromantikoa eta ipuinetatik hurbilegiak.

Positibismoaren erreakzioa ezagutu zen, XIX. mendearen bigarren erdian eta autore aipagarrien artean, Sagarmínaga, Labayru eta Karmelo Etxegarai aipatuko genituzke. Historia egitea egiazko dokumentuen aurkikundeari mugatuko zaio. Enpirismo dokumentalaren garaia dugu. Baina aldi hau, garrantzi handikoa izango da, historia funtzio politikoaren zerbitzuan, proiektu politiko berriak inbentatzeko erabiltzen baitzen. Baina tradizio positibista honetan, arazo politiko instituzionalak aipagarriak baitziren, XX. mendearen lehen herenean, bestelako gizarte zientzietako profesionalak kezka historiografiko berriak aterako dituzte. Honela, P. Alzola, eta Lazurtegik historia ekonomikoaren bidea urratzen hasi ziren, eta Bizkaiko jatorrizko kapital metatzeari buruz, lehen eztabaidak sortu. Bonifacio Etxegarai historia soziala eta antropologikoen kezka plazaratu zituen eta ideia berriez ornituriko artikulua bikainak, auzokidetasunari baina eta euskaldunen bizimodu zibil eta merkantilari buruz bestea, azaldu zituen. Arlo berean, I.

Gurrutxagak gogoeta jakingarriak adierazi zituen eta Lojendiok bere *Aspectos sociales de la historia vasca-n*, historia egiteko sentsibilitate berriak erakusten ditu, bere interpretazioak tradizionalismoan oinarritu arren. Politika eta instituzioen arloan, Vicario de la Peña, Orueta, K. Etxegarai ditugu aipaigai. Tokian tokiko medikuak, jende arruntaren bizimodu egoeraz ere lan bikainak argitaratu zituzten. Adibidez Trapagako langileen egoeraz 1903.an argitaratu zena.

Baina ikerlan bikainena eta euskal historiografiaren gailurretariko bat, Th. Lefebvrek jarriko zuen. Gutxi ezagutzen dugu bere bizimoduaz, bigarren mundu gerratean hila, alemanen aurkako erresistentziaren partaide izan baitzen. Berak, geografiaren abiapuntutik hasita, ea Euskal Herriari buruzko historia sozial eta ekonomikoaren lehenengo ikuspegi orokorra, azken mila urtetako bilakaeraz eskaintzen digu *Les modes de vie dans les pyrenees atlantiques orientales*, liburuan, 1933.an argitaratua. Bere lana premia premia da aintzakotzat hartzea tokian tokiko historia burutzeko orduan.

Gerra zibilaren ostean, produkzio historiografikoa, gunee desberdinetan zabaldu zen eta hauen artean bereiztuko genituzke, Donostia, Baiona eta Buenos Aires. Tradizio historiografiko desberdinak lantzen dira. Iparraldean, Eusko Jakintza aldizkariaren inguruan. Bertan, Eusko Ikaskuntzaren tradizioa jarraituz, kongresu bi antolatu ziren. Bestalde, Buenos Airesen, euskal historia nazionalaren ildo urratu eta landu nahi da, baina sarritan datu historikoak distorsionatuz. Adibidez, ikus Aralar (1944) izenekoak idatzi zituen lanak edo Galindez politikariaren interpretazioak. Baina toki berean bestelako ikuspegi zehatz eta benetako errealtatean finkatuagoak zirenak argitaratuko dira ere bai. Adibidez Aldasorok (1946) argitaratu zuen lantxo Gerra zibila eta askatasun konzeptuaz Euskal Herrian.

Frankismoaren garaian hala ere ahaztu ezineko lana da, Bascongada erakundearen, hau da, Herri adixkideen elkartearen babespean hasi ziren aldizkariak, eta ikerketa historikoen grina. Banco Bilbaok bere mendeurrenean argitaratu zuen liburu bikaina ere gogoan hartzekoa da. Baina autore guztien artean, gure ustez, Caro Barojaren historiografia azpimarratuko genuke. Bere liburua *Los Vascos*, beste sintesis jakingarria eta oinarritzakoa izango da. Ikuspegi antropologikoa du ibilbide nagusia eta modu logiko batez, euskal historia zirkloa antolatu zuen. Bestalde, euskal historiaren interpretazio ekologikoan barneratu zenean, Geddes autorean oinarriturik, eskema garrantzitsua erakusten du, tokian tokiko historia ulertzeko, batez ere ozeaniar isurkiko historia. Etnografiaren bidez, berak historia sozialari modu barri batez eusten dio, batzuetan soziologi ikuspegi estrukturalrean oinarrituz. Generalizazioak ez ditu maite eta horregatik espiritu etnografikoa begibistakoa dugu.

Hirurogeitamarreko hamarkadan, bestelako historiografia moetak indartzen dira. Arazo konkretu bakoitzak, bere historiografia berezia du, arazoa modu problematizatu batez ulertuz.

Kontextu honetan, kokatu behar dugu, ondoko horrietan aztertuko dugun tokian tokiko historiografia, azken batean azaldukoaren zati bat besterik ez baita izango.

2. TOKIAN TOKIKO HISTORIOGRAFIA XIX. MENDEAN

XIX. mendean, tokiko historiaren ikuspegitik argitaratu ziren hiztegi geografiko, historiko, estadistikoak, ethnohistorikoeekin batera, beharbada ekitzarik emankorrena izan ziren. (Sanchez Prieto, 1988) Hiztegi hauetan, zehatz mehatz eta sistematizaturik, hainbat informazio eta ekarpen jakingarriak aurkitzen ditugu eta tokian tokiko historia positiboaren eredu bikainak dira: *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (1802) *Diccionario Geográfico Estadístico histórico de España* (1846) Pascual Madozen zuzendaritzapean burutua, T. Muñoz Romeroren *Diccionario bibliográfico histórico de los antiguos reinos, provincias, villas, iglesias y santuarios de España* (1858) Pablo Gorosabelen *Diccionario histórico geográfico descriptivo de los*

pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa (1862) eta *Bosquejo de las anti-güedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa (1853)*.

Baina XVIII. mendearen bukaeran, hirietako monografi historikoen garaia hasi zela esan genezake ondorio jarraiturik eduki ez arren. (Camino, Gamon, Landazuri) Eta Bizkaiako herrien kondairarako Iturrizaren Bizkaiako historia nagusiaren lana (1793) behin behinekoa dugu, bertan historia sozialerako hainbat berri jasotzen ditugulako, herriz herri egiten dituen historiak bere deskribapen etnografikoetan aberatsak baitira.

Erromantizismoak zekarren historiarekiko zaletasunaz kutsaturik, tokian tokiko apaizak, jauntxoak eta eskribauak edo artxibategietako arduradunak, historia bereziak burutzeari ekin ziren. Berauek, ez ziren bakarrik helburu literario edo asmo ederrez burutuak. Sarritan monografi historiko hauen bidez, garaian garaiko arazoetaz lejitimitate historikoa aurkitu nahi zen, eta idazleak liberal joerakoak zirela aurkituko ditugu. Azken batez, oraindik historiak bere garrantzia zuen, aldaketa garaian, aldaketaren premia azpimarratzen zuen taldearen baitan bereziki. Beraz historia monografiko hauen azpian, badago egon intentzionalitate garbia, kultura politiko berriaren lejitimitate oinarria, lortzearena hain zuzen ere.

Adibidez Bermeori buruz Yradik (1844), joera liberaleko eskribaua berau, historia soziala ekonomiko eta instituzionala idatzi zuen. Balmasedaz lan historiko bi: Lehena Martin de los Heros politikari liberalak burutua 1848.an eta bestea E. Vediaarena (Mañaricua, 1973, orr. 397). Durangoz hiru lan monografiko burutu ziren: Beitia eta Etxezarretak 1868.an argitaratua eta C. Villavasok eta Antonio M. de Arguinzonizek burutuak (1886). A. Cavanillesek 1858.ean Lekeitióz liburutto jakingarria argitaratu zuen. J.E. Delmasen lana bere *Guía histórico descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya* (1864) eta *Viaje pintoresco por las Provincias Vascongadas* (1846) hiztegitentzaren eredu jarraituz, herrietako egoeraz jabetzeko aukera eskaintzen bait digu.

Iparraldean, aipatzekoa dugu, Balasquek (1862-1875) Baionari buruz idatzi zuen bere gairairako lan bikaina.

Baina bestalde, historia hauetan, ohizko gizartearen erakundeaz eta gatazkez badaude egon hainbat ikuspegi desberdin, eta batipat eguneroko bizimoduaz ikuspegi zehatzak. Aipatzekoa dugu W. Websterren *Les loisirs d'un étranger au Pays Basque*, iparraldeko Sara herriko gizarteaz eskaintzen dizkigun ohar jakingarriak.

XIX. mendearen azken herenean eta XX hastapenetan, historialarien artean, ikuspegi positibista zen nagusia eta historia narratiboa ere bai, historigintza arte ederretako adar legez harturik. Kultur eta moeta guztietako elkarteak ugaldtu ziren eta hitzaldiak ere gero eta sarriago antolatzen ziren eta historia aitzakizat hartuz, historialarien zeregina arte eta ekintza eder bilakatzen saiatzen ziren.

Bestalde, euskal nortasunaren guneaz hainbat kezka eta gogoeta burutzen hasiko ziren. Historiaren eta tokiko historiaren ikerkuntza bilaketa horretan, giltzarria bihurtuko zen. Honela, bada, monografietan abiada historikoa aztertzen saiatuko dira, garaikideko politikagintza indartzeko adibide historikoak erakutsiaz, aldakuntza sozialaren alde edo kontra edo tradizioaren izenean egonkortasuna edo kontserbadore joerak sendotzeko asmoz.

3. EUSKAL NORTASUNAREN ARAZOA ETA ERAKUNDEEN ERAGINA MONOGRAFIA HISTORIKOEN ALDE

Canovasek 1876.ean ezarri zuen egoera politiko berriaren ondorioz ohizko erakundetze publikoa erabat aldatu zen eta popularen baitan biktimismoaren kontzientzia gero eta errotuagoa zen. Galeraren edo galduen identitate ezezkorra gihartu zen euskal gizartean, aldi be-

rean sekula ezagutu ez zen hazkunde ekonomikoa abiatzen zela bitartean. Erromantizismoaren izpirituaren zabalkunderako baldintza ezin hobeak, eta beraz euskal nortasunaren berezitasunak goraitzen hasi ziren, *Euskara* elkarteok Arturo Campion historiaren eremuan intelektual sendoena dugularik (Huici, 1981). Sikologiaren gertakizunak interpretatzeko eragin nabarmena irabazi zuen eta beraz gizarte arazoak eta kezkek, ez dira problematizatuko historiaren ikuspegitik. Arturo Campionen eritziz indibidualismoan zetzan, euskal nortasunaren gunea: «*La personalidad euskara la he estudiado en los hechos y fenómenos de su vida social, y he llegado a convencerme de que el signo distinto de ella, la facultad dominante, es el individualismo*» (Campion, 1901).

Positibismoaren abiada nagusia izan arren XX. mende hasieran, euskal nortasunaren kezka idazle guztiengan eragin handikoa zen ere bai. 1876.ko urtez geroztik, kultur nazionalismoa nazionalismo politikoagoa baino garrantzitsuagoa bihurtu zen ezbairik gabe eta intelektualean artean nazionalismo arantastak baino eragin nabarmenagoa lortu zuen, *Euskara* elkartea Iruñean, aldizkaria edo eta lore jokoak, «*fiestas euskaras*» delakoak eta iparraldean *Eskualtzaleen biltzarra*, kultur giro berriaren adirazpen argiak ditugu. Guztiak kezkatu agertuko ziren euskal herriaren geroaz, euskaldunak betirako joan doan herria bait zirudien, E. Reclus geografo nagusiaren hitzetan. Azkue eta Campion izango ziren beharbada giro honetan nabarmendu ziren intelektualak eta azkenak hainbat lan historiko burutu zituen.

Guztiak ados tokian tokiko zaletasunaren inguruan. Tradizionalistak, liberalak zein euskal abertzaleak, denak saiatu ziren bakoitzak bere proiektu eta asmo bereziak eraginik, tokian tokiko ikerketak bultzatzen.

Gipuzkoako Monumentuen batzordeak XIX. mendeko azken urteetan herrietako monografi historikoaz arduratzen hasi zen eta Serapio Mugika artxiberoak *Monografía de la alcaldía Mayor de Aiztondo* 1899.an aurkeztu zuen, eta 1902.an argitaratu. Deskripzio soila dugu berau, hainbat dokumenturen transkripzio zehatza, artxiberoaren zeregina argi eta garbi erantsiz azkenik tokian tokiko pertsonai ilustreen berri eskaintzen zaigu. XX. mendeko lehen hamarkadan Gipuzkoan monografia historikoak burutzeko joera agertu zen S. Mugika eta C. Etxegarai ditugula animadore nagusienak. Ikuspegi liberalekoa zen A. Piralak ere XIX. mendeko Donostiari buruz monografia jakingarria burutu zuen eta B. Anabitartek (1903) Donostiko ogasunaz informazio jakingarria erakutsi zuen.

Gipuzkoako erakundeen eragina eredugarria zela eta A. Artiñanok, Bizkaiko monumentuen aldeko Batzordean, Bizkaiko herrien monografiak egiteko plangintza burutu zuen.

Bere projektuan parte bi bereizten dira: Sarreran, projektuaren zergatiak adierazteko orduan garaian garaiko historiografiaren ebaluapen praktikoa egiten zuen: Alde batetik Bizkaian denboran zehar, bertako historia nagusiaren arakatzea izan da garrantzitsuena, eta ez horrenbeste eguneroko gizartearen kezken azterketa, azken batetan helburu jakin bati begira, ohizko erakundetzearen denfentsaren alde burutzen baitzen historia. Eta A. Artiñanoren eritzian, justifikaturik zegoen: «*La especial constitución social de Vizcaya, conjunto de Municipios confederados para la defensa común y el desarrollo de los intereses que afectan a la generalidad, fue causa de que su historia sólo anote hechos relacionados con el común, especialmente de los que se referían a las luchas que sostuvo por conservar sus ingénitas libertades*» (BCMV, 1910). Beraz ea inor ez da arduratu tokian tokiko historia burutzen «*todo lo que en Vizcaya ha existido o existe relacionado con su vida intelectual, con el arte y con la cultura en general*» beste hitz batzutan «*se aprecia bien su civilización y cultura*». Horra bada, ikerketa berrien interesgune berriak argi eta garbi adierazirik. Bere projektua, azken batean hiru zereginetan zehazten zen: Herrietako monografiak, monumentu artistikoen inbentarioa eta Bizkaiko dokumentazioaz kartularioa burutzea. Guri oraingoan lehen projektua aztertzea dagokigu eta monogra-

fien interesguneak honako hauek izan behar ziren: historia politikoa edo zibila, eklesiastikoa eta gudena. Baina populazioaren historia eta ekonomi arloen bilakaeraren ikerketa ere sartzen zuen eta ez hori bakarrik, «*fuentes de riqueza que pueden explotarse para acrecentar su desarrollo y prosperidad*» hau da monografiaren helburua ez da egintza kulturalista soila, herriaren garapena eragingo duen zerbait. Ohizko ikuspuntua aldatuz zihonan eta historia gizarte zientzien arloaren baitan kokatzen zen. Puntu honen arabera, bere proposamenean modernitatearen izpiritua dakusagu argi eta garbi. Azkenik monumentuen eta tokiko seme ospetsuen biografiak burutzea ere eskatzen zuen.

Leihaketaren bidez honelako monografiaren ikerketa lortuko zela uste zuen eta Bizkaiko monumentuen batzordeak Bizkaiaiko Diputazioari bere gain har zezala eskatu zion. Eta Bizkaiko Diputazioak 1911.an onartu egin zuen. Baina A. Artiñano urrengo urtean hil egin zen, handik lasterrera Pablo Alzola, eta badirudi bi eragile hauek gabe, programa kili kolo gelditu zela, eta ezer gutxi aurreratu zen asmo on eta eragingor hauen bidez.

Gipuzkoa mailan, beharbada proiektu orokor haundi gabe, Diputazioko euskal festen batzordearen bidez hiri nagusien monografiak burutzen hasi ziren, K. Etxegaray Serapio eta Gregorio Mugika ditugularik bultzagile nagusiak.

Baina 1920.eko hamarkadan, *Geografía General del País Vasco-Navarro* liburukiak, Carreras Candiren zuzendaritzapean, lan enziklopedikoa eskeini zuten. Ezinbesteko abiapuntuak dugu, tokian tokiko edozein historiografian.

Giro honetan, geografia esparrutik eta etnografiaren esparrutik, mikrohistoriaren garrantzia, gero eta nabarmenagoa zen, eta gizartearen antolakuntzaz edo eta gatazka, geografo edo antropologoaren ikuspegi historikoak erabiliz, lan bikainak burutu zituzten. Honela gizarte eta gatazka sozialari buruz nabardura ideia eta teoria desberdinak nabari ditzakegu.

4. GIZARTEAZ ETA GATAZKA SOZIALARI BURUZKO IKUSPEGIAK, TOKIAN TOKIKO IKERKETA MONOGRAFIKOETAN

Tokian tokiko historiografiaren baitan, molde desberdinetako ikerlanak aurki ditzakegu eta beraz honen arabera honako hauek bereiztuko ditugu: Herri eta hirietako monografiak, arazo sozialari buruz gogoetak, gatazkak eta matxinadak, antropologia ikuspegiko azterketa sozialak, geografia ikuspegikoak, ekonomiaren testuinguruan agerturikoak eta topografia medikoak.

Lehen menderdia esan dezakegu, tokian tokiko monografiaren garaia dugula, eta herrialde guztietan, hiri garrantzitsuenen zein herri txikien monografiak burutu ziren. Beharbada aipagarriena horixe dugu, ez zela burutu ikuspegi orokorrik Euskal Herriaz, B. Etxegarai, Th. Lefebvre eta J. Caro Barojak salbuespenak ditugula.

Baina ba ote zen gizarte gatazkarik ohizko gizartean, lehen menderdiko tokiko historiografiaren arabera? I. Gurrutxagaren eritziz, «*concepto vulgar de régimen democrático y perfección social que comunmente se sostiene. Hay un fenómeno de idealización de nuestro pasado*» (Gurrutxaga I., 1933) XX. mendeko lehen hamarkadetan euskal gizarteaz idealizazioa erabat nagusia zen jende arruntaren artean, baina baita historialarien artean ere bai. Beraz goiko galderak badu zentzurik eta bera izango da kapitulu honen aria.

Lehen belaunaldia

Monografiaren arloan, Karmelo Etxegaray, Serapio Mugika eta Gregorio Mugika dugu lehendabizi aipatu eta aztertu behar ditugunak, lehendabiziko biak lehen monografiaren egileak direlako hain zuzen ere. Fausto Arocenak, Serapio Mugikari buruzko eritzi laburrean «el mono-

grafo» deitu zion, bere zeregin nagusietarikoa, Gipuzkoako udal artxibategiak atonduz gain, monografiak idaztea izan bait zen (F. Arocena BRSVAP, 1958, 457 orr.).

Historialari bi hauek, Etxegaray eta Mugika, XIX eta XX. mende bitarte garaiko ikerlari historikoen islada garbia direla, adierazten dute.

Serapio Mugikak 1902an *Monografía de la Alcaldía Mayor de Aiztondo* argitaratu zuen eta *Monografía histórica de la villa de Irún (1903)* monografiaren aldi berria irekitzen zuela esan dezakegu. Baina arazo militarrez gehien bat arduratu zen monografia honetan. Azkenik *Renteriz* 1930.ean ere idatzi zuen.

Baina 1908.an aldiz, Ordiziako monografia elkarrekin idatzi zuten, eta bertan nolabait, monografiak burutzeko metodologia antolatu, gainontzeko monografietan ere beste horrenbeste-ko kezka eta asmoak errepikatzen direlarik. Joaquin Antonio de Camino Orellak Donostiari buruz idatzi zuen monografiaren eragina nabarmentzen da, batez ere historia zibil, diplomática eclesiástica delako sailak aukeratzera. Euskal Erria aldizkarian argitaratu zen lehenengoz Caminoren historia.

Ordiziako liburuaren sarreran, eritzi jakingarriak adierazten zituzten, beraien pentsamendu historiografikoa ezagutzeko. Bertan, lehendabizi, ikerketa mikrohistorikoen zergatia frogatzen saiatzen dira horretarako Lord Macaulay historialariaren maisutasunean oinarritzen direlarik, hau da ikuspegi orokorra eta zehatzaren konbinaketa lortu behar dela, arazo txikien eraginez konjuntua osotuz. Zehaztapenik gabe ez dago historiarik baina bestalde erudizioarekin batera, «ingenio» delakoa ere beharrezkoa dela azpimarratzen zuten. Historia positiboa eta narratiboaren arteko tirabiraz eta ezbaiaz jabe ziren, baina azken batean, lehendabizikoa aukeratu zuten. Gizarteari buruz eta gizarteko gatazkei buru, ez dago gogoeta ez eta kezka berezirik. Monografi hauek, deskribapen soilaren islada gehiago dira, gogoeta baten ondorioa baino. Honela, hiriaren jaiokuntza erdi aroan, historia militarra, hots, guden historia, eleiz historia, udal administrazioaren bilakaera bere arlo guztietan, ekonomiaren garapena eta azkenik pertsonaien biografia edo aipamena. Garaikide zituzten gertaeren deskribapena idazterakoan, orduan, ikuspegi sozialak modu natural batez agiri dira. Honela, industrigintzaren abiadaren protagonista sozialak aipatzen dituzte, datu jakingarriak erakutsiz, XIX. mende amaieran industria arloan bultzatu zen abiadaren berri emanaz. Bestalde, gatazkaren batzuk ere aipatzen dira, adibidez, Aralar eta Ernio mendietako ondasunen jectioaz eta braz meagizonek planteatu zituzten arazoak. Baina guztia deskribapen hutsean agiri zaigu. Ez da agiri, teoria sozialik, gizartearen bilakaera halabarrez eta berez gertatua izango balitz bezalako ondorioa ateratzen da.

A. Campionek K. Etxegarairen eredu eta kezka historiografikoak ezagutzeko ohar jakingarriak eskaintzen ditu. Tokiko monografiaren zalea izan zela adierazten digu eta bestalde bere zeregin historiografikoa arte ederrekin loturik zegoela erakusten zuen. Agustin Thierry, Lord Macaulay eta H. Taine izan ziren bere erreferente historiografikoak. Historia orokorra burutzeko tokian tokikoa lehendabizi ezagutu behar zela, ornen zen K. Etxegarairen eritzi nagusienetarikoa. (Campion, 1925) Hau da historiografiaren historiaren baitan, metodologi positibistaren garapenaren prototipoa ditugu biak, eta B. Etxegarairen Ordiziako liburuari buruz idatzi zuen komentarioan (Etxegarai B. 1909) gogor kritikatzeko leienda eta mitoen garaia, aipaturiko bi autoreak joera berriaren bultzatzaileak zirelarik, hau da empirismo dokumentalaren aldekoak. «*Es la observación del hecho la que da lugar a acertadas generalizaciones*» idazten zuen B. Etxegaraiek. Beraz deskripzioa garrantzi nagusiko helburua zelarik, azterketa analitikoa eta hipotesi esperimentalen formulazioak albo batetara edo planteatzera ere, ez ziren heldu.

Gregorio Mugikak 1910.an Eibarreri buruz idatzi zuen monografia hildo beretik doa, eske- ma berbera jarraituz. Gudaren eta gatazken deskribapenak historialarien ikerketa helburu ga-

rrantzitsuenetarikoa dugu, informazio eta datu ebenementzialen nagusitasuna agiri da, beste-lako planteamentuen gainetik. «Progreso materialaren» bilakaera lineala eta beti hoberanzko joera optimistaren kontalaria dugu; inondik inora ez da agiri, gizartearen antolakizunaren oinarria zertan zetzan. Bestalde gogoratu behar dugu Gregorio Mujika izan zela historialarien artean saiakera historikoak euskaraz idazteari gehien ekin zion autorea.

Ezin ukatu, adibidez K. Etxegarairen kasuan behinik behin, herriaren izpirituaren nortasuna, ikuspegi erromantikoz jantzirik, helburu haundienetarikoa zela, baina ez horrelakoaren bilaketarik bere lan monografiko hauetan agiri.

Luis Martinez Kleiserek, Zumaiari buruzko monografian, 1923.an orrialde batzuk ohizko bizimoduari buruz bai burutu zituen baina pintoresko kutsuz gehiago ikuspegi problematiko batez baino. Jakingarria dugu aipatzeko behintzat, A. Loyarteren ahalegina, 1929.an Gipuzkoako herriei buruzko bere liburua alegia.

Iparraldean aldiz tokian tokiko historiografiak ez du behar ainako indarririk ez eta eraginik. Hala ere aipatzearen gogoratu behar ditugu Baionari buruz burutu ziren ikerlan monografiko garrantzitsuenak. XIX. mendean J. Balasquek lehen historia sendoa, positibismoaren arloan burutu zuen. Edouard Ducerek *Histoire topographique et anecdotique des rues de Bayonne (1887-1888 eta 1990an)*. *Dictionnaire historique de Bayonne*. Aipatzekoak Dubaratat eta Daranatzek *Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne (1909-1929)*. Joseph Nogaretek, 1925ean *Saint Jean de Luz des origines nos jours* argitaratu zuen. Lehenago Harystoyek Sr. *Jean de Luz et Ciboure. Souvenirs historiques et revolutionnaires*, 1885an Paben argitaratu zuen. Autore berberak, frantsez iraultza garaiko egoera herrietik herri deskribatu zuen. Laburbilduz, lan guztietan, gizarteari buruz eta gatazkez ere informazio ugaria aurkitzen dugu, baina sistematizaturik gabe eta ikuspegi orokorra hartzea benetan zaila da. Azken batean, informazioak gutxi jakinarazten digu, eta inon aintzinate zalekeria eta anekdotismoak garrantzia izan badu, iparraldeko historiografian agiri zaigu.

Nafarroan argitaratu ziren lanen artean, alde batetik ikasle garaiko autore biren lanak aipatuko ditugu: Leoncio Urabayenek (1915) Oroz Beteluri buruzkoa; ohizko bizimoduaren alde guztiak aztertzen saiatu zen. Bere monografia geografiko gisa argitaratua zen eta erakunde sozialaren deskribapen soila ez du gainditzen. Beste ikaslea, Bernardo Estornes Lasak *Erronkari. El valle del Roncal* izeneko liburua 1927.an argitaratu zuen. Bere mamian, tradizio mitikoak historikoekin nahasten zituen eta ikuspegia hagiografikoa da. Badaude egon beste monografi asko, baina ikuspegi soziala eta gatazkaren azterketa ez dute inondik inora arakatzen. Deskribapen soilaren kronika da joera nagusia: Adibidez Sebastian Iribarrenen *Apuntes sobre la historia antigua de Estella*, Sevillan 1912.an argitaratua, Ancil Migelena, *Compendio de la Historia de Anguesa desde su fundación hasta nuestros días*, E. Gancedo *Recuerdos de Viana o apuntes históricos*, Madrid 1933, Jose Beltranen *Historia completa y documentada de la M.N. y M.L. ciudad de Tafalla*, Tafalla 1920, Javier Garrizenaren, *La villa de Garde en el valle de Roncal. Ensayo de una monografía parroquial*, Pamplona, 1923. Tudelako herriak ezagutu zituen XIX. mendean, zenbait lan, batez ere bertako monumentuen historiari buruzkoak. Baina XIX. mendean, Sainzen *Apuntes tudelanos* lana dugu aipagarria eta gerora Castro medikuak idatzirik lan bibliografikoa.

Bizkaia mailan asmo onak bai baina egintza gutxi agiri da. Guiardrren Bilbori buruzko monografia historiko mardula dugu garrantzitsuena baina ikuspegi kronologikoa eta kronistikoa da nagusi eta beraz gizarteaz hainbat informazio jaso arren, ez digu eskaintzen ikuspegiarik gizarteaz ikuspegi zehatzik ez eta bere ustea gatazkak deskribatzen dituenen. Baina Mugartegiren Markinari buruzko monografian (1927) matxinada biren barri gertakizun berezi gisa adierazten zaizkigu: lehena XV. mendeko lan gatazka eta bigarrena 1766ko matxinada Markinan.

Hala ere, autoreak ez du arakutzen interpretabide zabalik; bereziena aipaturiko gatazka biak liburuaren parte garrantzitsuak bihurtu zirela. Beste monografia asko idatzi ziren, baina akats berberak somatzen ditugu lehen aldiko monografi historikoen garai honetan: Munguiatz Gutierrezek (1933) Gordexolaz eta Artzeniegaz Escarzagak (1919 eta 1927) Gernikaz Altubek. (1913) Berezia bai, A. Zabalak Bermeoz idatzi zuena.

Angel Zabalaren kasua, bestelakoa dugu. Sabino Aranaren oinordeko ofiziala, Bizkaiko historia politikoa, jeltzaletasunaren argitan interpretatzen du, nolabait, abertzaletasun aranistaren doktrinalaren sostengu indartzailea. Baina tokian tokiko historia egiten duenean, Bermeko historia aitzakitzat harturik, bere ohizko abertzaletasun aranistaren baitan, benetako historialariaren arpegia ageri zaigu, hipotesiak baino boluntarismo historikoa giltzarri duela, idazten du bere diskurtsu politikoa. Hala ere, oinarri sozialik gabeko diskurtsua balitz bezala, epaitzen da historia, sarritan gizaki bako historia. Ezin dugu esan historialari positibista ere denik. Bermeoko kontakizun zehatzean, deskribapen soilaren azterketa ez du gainditzen, baina bere espeientzia ideologiko politikoen ikuspegitik aztertzen du orotarreko zein tokian tokiko historia. Puntu honetan dugu bereizgarri Gipuzkoako monografia historikoen idazleekin parekatuz gero.

Ikuspegi sozialak eta gatazkak aztertzeko unean, ezin ditugu ahaztu, lehen menderdian idatzi ziren topografia medikoak. XIX. mendean Bilbori buruz Gurmensido Gomezek txosten (1890) jakingarria idatzi zuen, 1903.an meategietako gizartea ezagutzeko, San Salvador del Valle-Trapagari buruzkoa topografia mediko guztiz garrantzitsua dugu eta Poseerena (1914) bere orokortasunean informazio iturri zuzena, ohizko gizarteko egituraketa sozialetan murgiltzeko.

Bigarren belaunaldia

Baina, historialarioen egintzak zehaztuz, 1920-1930eko hamarkadan, gizarte zientzien arloan eta historialaritzan belaunaldi berria planteamendu berriztatuz plazaratzen hasi zen. Eusko Ikaskuntzako historia sailean ere aire berriak somatzen dira, eta lau autore aipa genitzake, 1930eko geroztiko belaunaldian, 1950arte: Th. Lefebvre, I. Gurrutxaga, F. Arocena eta J. Caro Baroja. Bonifacio Etxegarai ere talde honetan sartzen dugu, baina 1909.an tokiko historiaz bere lehen eritziak agertu zituzenez gero autore zuzia izango dugu.

Autore hauek, arazo sozialetaz kezka berriak eta planteamendu hipotetikoak agertzen zituzten, ondoren ondorioak atereaz. Bere portaera historiografikoa desberdina dela esan dezakegu. Azter dezagun lehendabizi B. Etxegarairen lanak eta jakina bere anaiaren ingurugiroan kokatu beharra dugu, bere anaia maisutzat hartu baitzuen. Ikuspegi soziala eta gizarte ajenteen kezka argi eta garbi zituellarik, Bonifacio Etxegarai jurista legez ikerlan historikoak burutzen ditu. Arazo honetan, lehendabiziko historialari soziala izan zela azpimarratu dezakegu. Espasa hiztegirako (1928) Euskal Herriaz ikuspegi historikoaren laburpena egin zuen, ikuspegi orokorraren lerro nagusiak erakutsiz. Baina bestalde, ikuspegi zehatzak, arazo mikrohistorikoak bere tokikotasunean aztertzea ez ezik, berezitasunaren lege nagusia edo orokorra, ateratzen ere ondo baino hobeto zekian. 1909an jadanik, tokian tokiko historiaren unibertsalatasuna erakusten saiatu zen, arazo orokorrak eta problematika historiografikoak toki mailan planteatuz. Eta jakitun zegoen 1909.an jadanik, historia erromantiko eta mitikotik iragan behar zen jauziaz eta horregatik positibismoaren aldeko proklama egingo du adieraziz *«en las ciencias naturales, como en las sociales, es la observación del hecho la que da lugar a acertadas generalizaciones»* (Etxegarai B. 1909). Fausto Arocenak bere ofizio historiografikoan honela definitzen zuen: *«Manejo de fuentes hasta la exhaustión, sentido crítico siempre vigilante, objetividad insobornable.»* (Arocena F., 1957).

Matxinaden azterketetan, beti aipatu ohi da urrengo orrietan komentatuko dugun Azpeitiako matxinadari buruzko I. Gurrutxagaren lan aipagarria. Eta egia esan, ikuspegi soziala bere

hartan hartuz, bere lana dugu aro berria irekitzen diguna. Baina hamabi urte lehenago, B. Etxegaraiak maisuki beste matxinada haundi bat hartu zuen aztergai: *El proceso de la Zamacolada* (1921) izenez argitaratu zuen, Bilboko matxinadaz azterketa zehatza. Egia esan, matxinada honek izan zuen bai, XIX. mendean jadanik, azterketa berezirik: Gogoratu besterik ez Camilo Villavasoren liburua: *La cuestión del puerto de la Paz y la Zamacolada* (1887). Baina oraingoan aipatzekoa dugu, gatazka honek izan zuen erakargarritasuna. B. Etxegaraiaren azterketa, ikuspegi soziala bere hartan baino, gatazkaren azpiegitura sozialean murgildu baino, jendoldeen psikologia kolektiboa igertzen saiatu zen eta gatazkaren kontexualizazio politikoa azalpen sakonaren ildoan eragin zuzenagoa izango du bere ustez eta azken hau ondo betetzen duela uste dugu, garain garaiko dokumentazioan ondo erabiliaz. Gure azterketa honetarako, gatazkaren azterketa izan zen heinean, garrantzitsua da, aukeratu zuen gaiaren aldetik ere. Baina horrez gainera bi ikerlan aipatu eta azpimarratu nahi ditugu, gizartearen komunitate zentzu eta sendotasuna Euskal Herrian azaltzeko eta ulertzeko, inork baino hobeto historialarien artean behintzat, asmatu zuelako, klabe jakingarriak zalantzarik gabe, ohizko euskal komunitatearen ezagutzan murgiltzeko.

La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas, 1921.ko hitzaldien inprimaketaren ondoren sortu zen aipaturiko lana, 1923.an argitaratuak. Bertan etxearen garrantzia euskal gizartearen erakundetzean aztertzen du, baina lurbaruko, goiherriko egitura sozialaren berezitasunak ez ezik, kostaldeak sortu zuen egitura eta ohitura sozialen azterketan ere saiatzen da, modu horretan, euskaldunon bi adieraztapenak modu orekatu batez erakutsiz. Zalantzarik gabe, proiektzio unibertsala azkenengo honek izan du. Lan hau, bere metodologia eta kezkatik, argigarria gertatzen zelako tokian tokiko azterketak burutzeko eta etorkizunari begira ere ekarpen haundikoa delako, aipatzen dugu honako honeta, B. Etxegarai modu sistematiko batez eta zuzenbidezko iturriak erabili bait zituen. Ez da arazo honetaz argitaratu zen lan bakarra, baina bai, historialarien ikuspegiz lortu zen lan sakonena alegia. Baina gizartea eta bere gatazken arazoa ulertzeko gure ustez bere lanik garrantzitsuena *La Vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco*, (RIEV, 1932) izenburuz argitaratu zuen.

Lan honetan, ohizko komunitatearen finkotasuna eta harremanak aztertzen ditu. Bere ikerketa kezka: auzotasunaren sorrera eta jatorria aztertu, eta bilakaera hori nola gertatu zen. Gatazka badirudi, aldaketarako bidean kokatzen gaituela, baina bere kasuan nabarmenago da funtzioaren azalpena aldaketaren fenomeno bano. Artzai eta laborari komunitatearen harreman sistema aztertzen du, baina hiriaren baitan auzotasunak sortarazten duen sare harremana ere aztergai eta konparagai dugu beti. Sorburuak, ahoko informazioa eta juridikoak dira, hala nola udal ordenantzak, kofradienak eta abar. Auzo harremanak, lan profesionalaren, erlijio eta hezkuntzaren esparrutan nola garatu eta errotu diren aztertzen digu, indibiduen fazeta kolektiboa eta solidarioa azpimarratuz. Tipo sozialaren sorkuntza eta osokuntza du azken batean aztergai. Eta bere tesia honela laburtzen du: «*El auzotasun, que es fruto espontáneo del deseo de quienes lo constituyen, se desenvuelve al margen de la tutela de los organismos administrativos; pero es sin duda reflejo de la más antigua estructura social y política de Euskal-Erria* (1933.eko edizioa, 55. orr.). Tesis hau, ezbaririk gabe, eztabaidagarria dugu. Aintzinatearen kezka agiri du alde batetik, edozein garaikidetasuna edo oraina aintzinatearen ispilua baltz bezala. Interesgarria deritzagu, erakunde administratibo eta bere harremanen mugatasuna eta betelako bizimodu soziala arau administratiboetara ezin dela makurtu agertzen du, eta hau honela onartzea bidezkotza derizat. Baina auzotasuna ez da halabarrez, indibiduo batzuen ondorio espontaneo. Auzotasuna sortu ere sortu eta aukeratu egiten da. Egintza eta proiektu bultzatua da, denboran zehar, modu desberdinez sortzen eta egiten joan doan fenomeno alegia.

B. Etxegaraiek, bere lanean, kezka epistemologikoak ere agiri zituen. Honela, arazoen interpretazioak asmatzerakoan adieraziko du, Gorosabel kritikatzu «*Hay fenómenos históricos que no son susceptibles de una interpretación que se atenga exclusivamente a motivos de orden material y económico; alienta en ellos algo que arranca de la psicología del pueblo que /as produce.*» (BCMV, 1909, 58-59 arr.). Herri izpirituaren jeinuaren kutsu erromantikoa agiri da, eta bestalde, sikologismoa, A. Campionen lanetan hain nabarmena dena. Azkenik aipatu, bere konparaketarako joera. Honela, analogiak aurkitzen saiatzen da, Walles, Portugal Sajonia, toki horietan ere auzotasunaren garrantzia nabarmena delarik, ohizko politiko-administratioak sortzen dituenengandik.

Th. Lefebvreren lanak, ildo berriaren joera aberatsa ere erakusten du, baina geografiaren eremua urratuz. Frantzian erro sakonez sustraitu zen, giza geografia erregionalaren kide dugu. Baina arazoen denboralitateaz kezka bizia erakusten du. Eskema ebolutiboa argi eta garbi erakusten du arazoen esplikazioak aurkitzerakoan, deskribapen soilak arbiatuz. Bere lan mardulean laborari eta artzaien arteko gatazken berri Euskal Herritik barrera, tokian tokikoak aipatuz eta gizarte antolakuntzaren ikuspegi zehatza, bilakaera soziala eta ekonomikoa ulertzeko eskema argigarriak sortu zituen. Ikerlana ikuspegi orokorrekoa izanik, autorea, tokian tokiko deskribapen zehatzak abiapuntutzat harturik galderak, hipotesiak eta eskema interpretatiboa lortzen du. Gure ustez, tokian tokiko azterketa planteamentu orokorraren baitan kokatzen du, eta bizimoduaren aldakuntza nagusiaren urratsak espazio txikietan nola gihartu zen arakatu zuen. Horregatik, ezbaierik gabe, lan eredugarria ez ezik, ikerlan mugarrira suposatu zuen.

I. Gurrutxagak, (1933) tokian tokiko azterketan, gatazka sozialaren izana ohizko euskal gizartearen agiri digu, idealizazioak arbiatuz eta klaseen arteko tirabirak nabarmenak zirela erakutsiz. Azpeitiako 1766.eko matxinadaren azterketa bere garaiko eredugarria da eta honezkeror aski ezaguna. Bertan XVIII. mendeko gizartea ezagutzeko eta interpretatzeko paradigma berria erabiltzen du, kontraesan sozialak gordindu zirela, gizarteak ezagutu zuen oligarkizazioa medio. Ikerlan paradigmatikoa eta eredugarria berea, bere garaiko punterengo historiografiaren ildo urratzen hasia baitzen, gatazka sozialaren zergatiak ohizko gizartean aztertu zituela. Eta Lizarran ospatzeko zen Eusko Ikaskuntzen historiako kongresurako hain zuzen ere, bera zen historia sozialaz arduratzeko agindua hartu zuena. Baina tamalez guda zibilak porrotera baztertu zuen hain Kongreso itxaropentsua.

Aipatzekoa dugu ere Lojendioren artikulua luzea (1935), bertan esaten dituenak baino, planteaturikoak dituenak garrantzitsuagoak dira. Euskal historian zehar arazo sozialen azterketa, tokian tokiko adibidez egiten ziharduen. Baina bere tesiak, garaikide garairako adibideak ohizko tradizioan sorturiko soluziobideak aurkitu nahiak, nolabait mugaturik uzten du. Helburua «*equilibrio de la armonía de la vida vasca en la época foral*» indarrean jartzea zen eta horra Gurrutxagaren tesietatik zein urrun agertzen zen.

1940.eko hamarkadan, Donostian historialarien tertulian biltzen ziren Ciriquiain Gaiztarrok, eta J. Caro Baroja dira historialari garrantzitsuenak, tokiko historiografian alegia.

Lehenak, Portugaleteri buruzko monografia jakingarria idatzi zuen (1941). Hala ere, nahiz eta aurreko monografiekin parekatuz gero eskema osotuagoa izan eta aberatsagoa, gertakizunen nundik norakoak sortzen du historiaren aria eta beraz gizarte arazoak eta gatazkak, gerra ez ezik, ez dute inolako zentralitatearik.

Bestelakoa gertatzen da J. Caro Barojaren lanean. Esan beharra dago, etnografiak J.M. Barandiaren bidez Eusko Folklore aldizkarian, gizarteko ohizko bizimoduaz kezkatzen hasi zirela, baina ikuspegi historikorik ez zen gehiegi nabarmentzen. Dena dela, ahaztu ezinekoea dugu, Gasteizko Seminarioan J.M. Barandiaranek sortu zuen laborategia honako asmo honek

eragindia «poseer una visión panorámica de la vida un pueblo» eta aztertu «los fenómenos de la generación de los elementos culturales, así como de la degeneración y de la regeneración de los mismos» 1924.an J.M. Barandiaranen, Eusko folklore aldirikarian artikulu jakingarria argitaratu zuen: «Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales». Honetan, herrien gizarteak nola bilakatu den aztertzen du, bere jaioterria, Ataun, abiapuntutzat harturik. Albo batetara uzten badigu azpian dauden paradigma teorikoak, historia sozialaren ikuspuntutik obra jakingarria berau. Baina epe motzeko denboran Barandiaran ez bazen murgildu, ez eta erromatarren ostetik gaurregungo garaietarteko historian, beste antropologo bat, J. Caro Baroja, arduratuko zen aurrerantzean. Bera de Bidasari buruzko ikuspegi etnografiko historikoa erabat gizar-tearen azterketan erabili zuen eta jende arruntaren bizimoduak zentralitatea irabazten du. Baina bere ikuspegi berria, *Los Vascos* liburuan agiri zaigu, bertan ikuspegi sozialak sarritan agiri bait zaizkigu, eta badakigu jakin, tokian tokiko jende arruntaren bizimoduen azterketa, J. Caro Barojaren lanen gunetarikoa ditugula. Bukaeran zikloka antolatzne du historia, eta esan dezakegu tradizio etnografikoak eta historikoak bat egiten dutela. Gatazka sozialaz ez du teoria berezirik hartzen, baina aldakuntza sozialak bai kezkatzen zuen. Ahaidetasunean sortzen diren harreman sozialak aldiz, bai aztertu zituen. Gerora pertsonai eta protagonisten psikologia eragin eta abiapuntu haunditzat psikologia eragin eta abiapuntu haunditzat hartuko zuen. Dena dela, Bera de Bidasoako monografiak, proposamen berria da, tokian tokiko historia soziala eta antropologiaren aplikapenerako eredia baita, kezka orokorren garrantzia galdu gabe.

Amaitzeko aipatu behar dugu 1950.eko hamarkadan, Zumaldek Oinatiri buruzko azterketa egin zuela eta 1964.ean, tokian tokiko lan monografikoak burutzeko Herri Adiskideen babespean, proiektu garrantzitsua aurkeztu zen. Honen ondorioz Donostiko Dr. Camino historiazko taldea sortu zen. Talde honen helburua, eredugarria bihurtzea zen, baina bere garaian behintzat, ez zuen arrakastarik lortu Gipuzkoako beste herrietan. Proiektuaren helburua, Eusko Ikaskuntzak errepublika garaian planteatu zituen arazoan jarraipena edo lotura erakusten zuen. Honela, berriz ere, datu eta informazio dokumentalaren kolekzionismoan zetzan. Ustea honako hau zen: Tokian tokiko informazioa bilduz gero, errexago historia orokorra. Baina hau ez da beti honela gertatzen. Dena dela, ondoko urteetan, Gipuzkoako herri guztiei buruz, monografiak burutu ziren. Guztiak, enpirismo dokumentalaren erakusleak ditugu, eta gure gaurrengo egitekoan, sorburu edo iturburutzat erabil ditzakegu.

Literatura eta tokian tokiko historia

Literaturaren bidez, pertsonaiaren barneko grinetan oinarrituz, gizarte jakin baten kezkak asmoak eta proiektuak azaltzen zaizkigu. Beharbada, tokian tokiko sena, literatur munduan inon baino hobeto lekutu da eta Euskal Heriko literaturetan, euskarazkoan zein erdarazkoan, XIX eta XX. mendean, tokian tokiko bizimoduaren erakusketa burutzen da. Modu horretan, aipagarriak dira, Moguelen *Peru Abarkan* edo D. Agirrerren *Garoan* edo *Kresalan*, ohizko herrixken bizimoduaren ikuspegia. Beste horrenbeste Pio Barojaren nobeletan ohizko euskal herrietako bizikera eta haremak agir zaizkigu. Unamunoren *Paz en la guerra* izekoan aldiz indusgintza baino lehenagoko Bilbo agiri zaigu. Ikuspegi hauek aintzakotzat hartu beharra daude, herrietako bizimodu sozialaren erakusle dinamikoak direlako eta kasu guztietan, oinarritzko ezagutza zehatzean finkaturiko jakintza erakusten digute.

ONDORIOAK

Gizateaz eta gatazka arazoak lehen menderdiko tokiko historiografian ez dugu ez lan oparorik. Hiru aldi desberdin bereiz genitzake, historiaren produktu historiografikoaren arabera: Lehena, hiztegigintza, datu bilduma oparoa. 1920-1930 arte, artxibo munduan murgildurik zenbiltzenak, monografia historikoak burutzeari ekin zioten. Artxiberu hauek metodologia posi-

tibista eta erabat deskriptiboa erabili zuten nolabait, historiografia erromantikoaren aurka eta bere zereginaren helburua datuak erakustean bukatzen zen. Historia lineala, kronika neolatinista eredu latino klasikoak imitatzen dituzte, bertute kristau tradizionalak eta sailka historia mi-Narra, eklesiastikoa udal erakundeena azpimarratuz. K. Etxegarai, T. Guiard, S. Mugika, G. Mujika ditugu monografi aldi honetan esponenterik nabarmenak. Bigarren belaunaldian barriz, ikuspegi analitikoa, eta hipotesiak planteatzeko sistema, arazoak eta bereziki gizarte arazoak eta gatazken zergatien ikerketa, sortzen da, eta belaunaldi hau esango genuke, unibertsitari ikasketen jabe zirelarik, beste moeta historiak lantzen zituen, girarte zientzien eremuan murgilduz. Gure kasuan, zuzenbide antropologia eta geografiarekin harreman zuzenetan alegia. B. Etxegarai, Th. Lefebvre, I. Gurrutxaga, Ciriquiain Gaiztarro eta Julio Caro Baroja esango genuke, bigarren belaunaldi honen ereduak liriateke.

BIBLIOGRAFIA-AIPATUA

- ALDASORO R.M.: *Las guerras civiles y el concepto de la libertad en la Historia contemporánea del pueblo Vasco*. Buenos Aires 1946.
- ALTUBE L.: *Ensayo histórico y apuntes para la historia de la villa de Guernica*. Guernica 1913.
- ALZOLA P.: *El porvenir minero, industrial y comercial de Bilbao*. Bilbao 1907.
- ANABITARTE B.: *Gestión del municipio de San Sebastián*. San Sebastián 1903.
- ARALAR, J.: *Los adversarios de la libertad vasca desde 1794 a 1829*. Buenos Aires 1944.
- ARGUINONIZ A.M.: *Sinopsis histórica de la villa de Durango y noticia biográfica de sus hombres más célebres*. Durango 1989.
- AROCENA F.:** *Boletín de la Real Sociedad Vascongada del País*. 1957, 75 orr.
- BALASQUE J.: *Etudes historiques sur la ville de Bayonne*. Bayonne, 1862, 1869, 1875.
- B.C.M.V.: *Boletín de la Comisión de documentos de Vizcaya, 1909 y 1910*.
- BEITIA F.A., ECHEZARRETA R.: *Noticias históricas de la noble y leal villa de Durango*. Bilbao, 1967.
- BELTRAN J.: *Historia completa y documentada de la M.N. y M.L. ciudad de Tafalla*. Tafalla, 1920, *Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya*, 1909, 1910, Cuaderno II, 18-20orr., 1911.
- CAMINO J.I., *Historia civil-diplomático-eclesiástica, anciana y moderna de la ciudad de San Sebastián, con varias noticias particulares pertenecientes a la Provincia de Guipúzcoa*. San Sebastián, 1963.
- CAMPION, A.: «*La personalidad euskara*», 1901, T. XIII, Obras completas, 133 orr.
- CAMPION A.: *Euskalerriaren alde*, 1925, 414 orr.
- CARBONELL, CH. O., *Pour une histoire de l'historiographie*. Storia della Storiografia, nº 1, 1982, 7-25.
- CARO BAROJA J.: *De la vida rural vasca. Vera de Bidasoa*. Madrid, 1944, San Sebastián, 1974.
- CARO BAROJA J.: *Los vascos*. San Sebastián, 1949.
- CAVANILLES A.: *Lequeitio en 1857*. Madrid 1858.
- CIRQUIAIN GAITZARRO: *Monografía histórica de la muy Noble Villa y puerto de Portugalete*. Bilbao, 1941.
- DELMAS J.E.: *Viaje pintoresco por las Provincias Vascongadas (1846)*.
- DELMAS J.E.: *Guía histórico descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya*, 1864. *Diccionario Geográfico Estadístico histórico de España*, 1846, Pascual Madozen zuzendaritzapean burutua. *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, 1802.
- DUBARAT ETA DARANATZ *Recherches sur la ville et sur l'Eglise de Bayonne*, 1909-1929.
- DUCERE E.: *Dictionnaire historique de Bayonne*.
- DUCERE E.: *Histoire topographique et anecdotique des rues de Bayonne*. 1887-1888 eta 1990an.
- ECHEGARAY B.: *La Vencindad. Relaciones que engendra en el País Vasco*. San Sebastián, 1933.
- ECHEGARAY B.: *La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas*. San Sebastián, 1921.

- ECHEGARAY B.: *El proceso de la Zamacolada*. Bilbao, 1921.
- ECHEGARAY B.: *Recensión de la obra, Villafranca de Guipúzcoa*. B.C.M.V., 1909, Cuaderno II, 77-79 orr.
- ECHEGARAY C., MUGICA S.: *Villafranca de Guipúzcoa. Monografía histórica*. Irún 1908.
- ESCARZAGA E.: *Avellaneda y la junta General de las Encartaciones*. Bilbao, 1927.
- ESCARZAGA E.: *Descripción histórica del valle de Gordejuela*. Bilbao, 1919.
- ESCARZAGA E.: *La villa de Arceniega*. Bilbao, 1927.
- ESTORNES LASA B.: *Erronkari. El valle del Roncal. 1927. Euskal Erria*.
- ESTORNES B.: *Historiografía en Diccionario Enciclopédico vasco*. San Sebastian. 1985, pp. 425-449, vol. XVIII.
- EVERITT A., TRANTER M.: *English Local history at Leicester 1948-1978. A bliography of Wtings by Members of the Department of English Local History*, University of Leicester, 1981,
- EXTRAMIANA, J.: «Historiografía vasca reciente» en TUÑON DE LARA: *Historiografía española contemporánea*. Madrid 1980.
- GAMON, J.I.: *Noticias históricas de Rentería*. San Sebastián, 1930.
- GANCEDO E.: *Recuerdos de Viana o puntes históricos*. Madrid, 1933.
- GARCIA DE CORTAZAR MONTERO M.: «Historiografía» en *Diccionario de Historia del País Vasco*. San Sebastian, vol. 1, 1983.
- GARRIZENA J.: *La villa de Garde en el valle de Roncal. Ensayo de una monografía parroquial*. Pamplona, 1923.
- Geografía general del País Vasco Navarro*. Barcelona, 1911-1920, 6 vol.
- GOMEZ G.: *Cómo se vive y cómo se muere en Bilbao. Reseña demográfica de la I. Villa*. Bilbao 1896.
- GOROSABEL P.: *Diccionario histórico geográfico descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa* (1862).
- GRAU R.-LOPEZ M.: «L'escola historiogràfica» en *L'aportació de la universitat catalana a la ciencia i a la cultura*. Barcelona, 1981, 148-154.
- Grupo Dr. Camino de historia donostiarra*. San Sebastián, 1966.
- GUIARD T.: *Historia de la noble villa de Bilbao*.
- GURRUTXAGA I.: *La hidalguía y los fueros guipuzcoanos en Euskalerraren alde*, nº 327.
- GURRUTXAGA I.: *La machinada del año 1766 en Azpeitia. Su causas y desarrollo*. Yakintza, nº 5, 1933, 373-392.
- GUTIERREZ J.: *Historia de Munguía*. Bilbao, 1933.
- HARYSTOY: *St. Jean de Luzet Ciboure. Souvenirs historiques et revolutionnaires*. Pau, 1885.
- HEROS M.: *Historia de Valmaseda, villa del antiguo condado y señorío de Vizcaya*. Bilbao, 1926.
- HUICI V.: «Ideología y política en Arturo Campion» in *Príncipe de Viana*, 1981, 641-687 orr.
- IRRIBARREN S.: *Apuntes sobre la historia antigua de Estella*. Sevillan 1912.
- L'ESPAI VISCUT. *Coloqui nternacional d'histria local*. Valencia, 1989.
- LANDAZURI J.J.: *Historia civil, eclesiástica, política y legislativa de la M.N. y M.L. ciudad de Vitoria*. Madrid, 1780.
- LAZURTEGUI J.: *Ensayo sobre la cuestión de los minerales, ayer, hoy y mañana*. Bilbao 1910.
- LEFEBVRE TH.: *Les modes de vie dans le Pyrenees atlantiques orientales*. Paris, 1933.
- LEVI G.: *La herencia inmaterial*. Madrid 1990.
- LOJENDIO L.M.: *Aspectos sociales en la historia vasca*. San Sebastián, 1935.
- LOPEZ ATXURRA R.: *La foralidad en la historiografía vasca*, *Ernaroa* 6, 1991, 117-170 orr.
- LOYARTE A.: *La vida de la ciudad de San Sebastián*. San Sebastián 105-1955, 7 liburuki.

- LOYARTE A.: *Pueblos y hombres de Guipúzcoa*. San Sebastián, 1929.
- MADINABEITIA J.: *El libro de Amurrio*. Bilbao, 1933.
- MAÑARICUA A.: *Historiografía de Vizcaya*. Bilbao 1973.
- MARTINEZ KLEISER L.: *La Villa de Villagrana de Zumaya*. Zumaya, 1923.
- MESTRE J.: L'Espai viscut: *Les perspectives internacionals de la historia local L'Àvenç*, 1988, Abendua, QQ. 278-279.
- MIGELENA A.: *Compendio de la Historia de Sangüesa desde su fundación hasa nuestros días*.
- MUGARTEGI J.J.: *La villa de Marquina*. Bilbao, 1927.
- MUGICA S., AROCENA F.: Reseña histórica de Rentería in Gamon J.I., *Noticias históricas de Rentería*. San Sebastián, 1930.
- MUGICA S.: *Monografía histórica de la villa de Irún*. Irún, 1903.
- MUGICA S.: *Monografía de la alcaldía Mayor de Aiztondo* (1899). San Sebastián, 1902.
- MUJICA G.: *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Irún 1910.
- MUÑOZ ROMEROREN T.: *Diccionario bibliográfico histórico de los antiguos reinos, provincias, valles, iglesias y santuarios de España* (1858).
- NOGARET J.: *Saint Jean de Luz des origines nos jours argitaratu zuen*. 1925.
- OLABARRI I.: «Proyectos historiográficos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País» / *Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. San Sebastian 1986, 461-470.
- OLABARRI I.: «Estado actual de la historiografía vizcaina» *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXII, 1987, 485-498.
- ORUETA J.: *Fueros y autonomía, Proceso de/ Estatuto Vasco. 1905-1933*. San Sebastian. Nueva Editorial 1934.
- PEDRALS X.: La construcció de la història local al Principat: una perspectiva històrica in *Plecs d'història local (26) L'Àvenç* 136, Barcelona, 1990, 35-40 orr.
- PHYTHIAN-ADAMS C.: *Re-thinking English Local History*. Leicester University Press. 1987.
- PIRALA A.: *San Sebastián en el siglo XIX*. Madrid, 1900.
- PESSE Y VILLELGA J.: *La vida social en el País Vasco*. Durango, 1914.
- SAGARMINAGA F.: *El Gobierno y Régimen foral del Señorío de Vizcaya*. Bilbao 1892, 8 vols.
- SAINZ M.: *Apuntes tudelanos*. Tudela 1913-1914.
- SANCHEZ PRIETO J.M.: Problemas de historiografía vasca contemporánea in AGIRREAZKUENAGA J. - GARCIA SANZ MARCOTEGUI A. (coord.) *Economía eta gizarte arazoak, XIX-XX. mendeak Economía y conflictividad social siglos XIX-XX*. II Congreso Mundial Vasco. San Sebastián, 1988, 415-431 orr.
- SERDAN E.: *Rincones de la historia vitoriana*. Vitoria, 1914.
- URCELAY DA CAL E.: *Història regional, història comarcal, història local in Reflexions metodològiques sobre la història local* Girona, 1985, 13-26 orr.
- URABAYEN L.: *Oroz-Betelu*. Madrid, 1916.
- URROZ E.: *Compendio histórico de la villa de Tolosa*. Tolosa, 1913.
- VILLAVASO C.: *Historia de Durango y de sus más ilustres hijos*. Bilbao, 1968.
- VILLAVASO C.: *La cuestión del puerto de Paz y la Zamacolada*. Bilbao, 1887.
- WEBSTERR W.: *Les loisir d'un étranger au Pays Basque*.
- YRADI J.A.: *Bermeo Antiguo y Moderno descrito y pintado en lo más notable*. (1844). Bermeo, 1983.
- ZABALA A.: *Historia de Bermeo*. Bermeo, 1928.
- ZUMALDE I.: *Ensayos de historia local vasca*. San Sebastián, 1964.
- ZUMALDE I.: *Historia de Oñate*. San Sebastián, 1957.